

# 16/1994 Foru Araua / Norma Foral 16/1994

Azaroaren 24ko 16/1994 FORU ARAUA,  
Gipuzkoako Finantza Kontseilua sortzen duena

NORMA FORAL 16/1994, de 24 de noviembre,  
por la que se crea el Consejo Territorial de  
Finanzas de Gipuzkoa

## HITZAURREA

1. artikulua.
2. artikulua.
3. artikulua.- Kideak.
4. artikulua.- Bilerak deitzea.
5. artikulua.- Jarduteko era.
6. artikulua.- Aholkularitza eta datu bilketa.
7. artikulua.- Kontseiluaren egintzen eraginkortasuna.

## XEDAPEN GEHIGARRIA

## XEDAPEN IRAGANKORRA

## XEDAPEN INDARGABETZAILEA

## AMAIERAKO XEDAPENAK

## PREÁMBULO

- Artículo 1.
- Artículo 2.
- Artículo 3.- Composición.
- Artículo 4.- Convocatoria de las sesiones.
- Artículo 5.- Funcionamiento.
- Artículo 6.- Asesoramiento y obtención de datos.
- Artículo 7.- Eficacia de los actos del Consejo.

## DISPOSICIÓN ADICIONAL

## DISPOSICIÓN TRANSITORIA

## DISPOSICIÓN DEROGATORIA

## DISPOSICIONES FINALES

**Azaroaren 24ko 16/1994 FORU ARAUA,  
Gipuzkoako Finantza Kontseilua sortzen duena** (G.A.O. 228 zk.; 12-1; 15.573 or.) (\*)

## HITZAURREA

Ekonomi Itunaren ezarpenaren ondorioz eta bertatik sortutako baliapideetan Udalen partaidetza gehitzearen ondorioz, udal finantzei eragiten dieten erabakiak hartzerakoan Udalek beraiek Finantza Publikoen Euskal Kontseiluaren bitartez edota Eusko Jaurlaritzaren 1994ko uztailaren 28ko Dekretuz sortu zen Euskadiko Udal Kontseiluaren bitartez esku hartzea komenigarria dela ondorioztatu da.

Halaber, beharrezkotzat jo da, Gipuzkoako esparruan Udal Administrazioak berari eragiten dioten gaietan parte hartza ahalbideratuko duen organoa sortzea, Udal Administrazio horren eta Foru Aldundiaren arteko iharduera koordinatua lortzeko xedez.

Arrazoi hori dela eta, Foru Arau honen bitartez eratu den Gipuzkoako Finantza Kontseilua organo aholkuemaile eta aztertzalea izango da, egiteko ugari eta egitura malgua izango du eta helburu nagusitzat Gipuzkoako Herrialdeko Erakundeen ihardute eraginkor eta bateratua lortzea izango du.

## 1. artikulua.

1.- Gipuzkoako Finantza Kontseilua eratzen da Gipuzkoako Udal Administrazioaren eta herrialde historikoko Foru Aldundiaren elkarren arteko partaidetza bultzatzeko eta guztiak elkarrekin lanean aritzeko.

(\*) Ikus 42/91 (erf. 91/58) Foru Dekretua, Foru Aldundiako Departamentuak zehazten dituena; 48/91 (erf. 91/64) F.D.a, departamentuen egiturari buruzkoa eta 27/92 (erf. 92/41) F.D.a, Ogasun eta Finantzaketa Departamentuen egiturari buruzkoa, 60/94 (78) eta 76/94 (94) Foru Dekretuen bidez aldatu zena.

Ikus ere, Aurrekontuen 1/94 (1) Foru Araua, eta 15/94 (15) Foru Araua, Udal Finantzaketarako Foru Fondoa arautzen duena.

**NORMA FORAL 16/1994, de 24 de noviembre, por la que se crea el Consejo Territorial de Finanzas de Gipuzkoa.** (B.O.G. nº 228; 1-12; pág. 15.573) (\*)

## PREAMBULO

Como consecuencia de la implantación del Concierto Económico y del desarrollo de la participación de los municipios en los recursos procedentes del mismo, se ha derivado la conveniencia de que los Municipios intervengan en la adopción de las decisiones que afectan a las finanzas municipales, bien por medio del Consejo Vasco de Finanzas Pùblicas o por medio del Consejo Municipal de Euskadi, creado por Decreto del Gobierno Vasco de 28 de julio de 1994.

Asimismo, se considera necesario crear un órgano que, en el ámbito de Gipuzkoa, posibilite la participación de la Administración Municipal en materias que le afectan, con el objeto de lograr una actuación coordinada entre la misma y la Diputación Foral.

Por ello, el Consejo Territorial de Finanzas de Gipuzkoa que se crea en la presente Norma Foral, se configura como un órgano de carácter deliberante y consultivo, al que se le dota de unas amplias funciones y de una organización ágil, con el objetivo primordial de conseguir un funcionamiento eficaz y coordinado de las Instituciones del Territorio Histórico.

## Artículo 1.

1.- Se crea el Consejo Territorial de Finanzas de Gipuzkoa como órgano de participación y coordinación entre la Administración Municipal de Gipuzkoa y la Diputación Foral de dicho Territorio Histórico.

(\*) Véanse el D.F. 42/91 (r. 91/58), s/ determinación de los Departamentos de la Diputación Foral; el D.F. 48/91 (r. 91/64), s/ estructura departamental; el D.F. 27/92 (r. 92/41), s/ estructura del Departamento de Hacienda y Finanzas, modificado sucesivamente por D.F. 60/94 (78) y D.F. 76/94 (94).

Ver también la N.F. 1/94 (1), de Presupuestos, y la N.F. 15/94 (15), reguladora del Fondo Foral de Financiación Municipal.

2.- Gipuzkoako Finantza Kontseilua organo aholkuemaile eta azterzailea izango da.

## 2. artikulua.

Gipuzkoako Finantza Kontseiluaren egitekoak hauek izango dira:

- a) Itundutako nahiz itundu gabeko Zergetan udal partaidetza zehatztuko duten irizpideak proposatzea.
- b) Itundutako nahiz itundu gabeko Zergetan udal partaidetzaren banaketa irizpideak nahiz kuantifikazioa proposatzea.
- c) Mankomunitate, Kontsortzio eta Udal esparrua gainditzen duten gainerako Entitateen aldeko finantzaketa formulak eta banaketa irizpideak proposatzea.
- d) Gipuzkoako herrialde historikoan udal elkartea garrantzitsuenaren eredua eta finantzaketaren zenbatekoa proposatzea.
- e) Udalak elkarrekin lanean aritza, elkartza eta batza bultzatuko duten bideak proposatzea.
- f) Gipuzkoako herrialde historikoko sektore publikoaren ekonomi, finanza eta aurrekontu iharduerekirik zerikusia duten gaiak Gipuzkoako Foru Aldundiari eta herrialde historikoko Udalei prestatzeko eta aztertzeko proposatzea. Gai horiek arlo hauek ikutuko dituzte, hain zuzen:
  - 1.- Intereseko Udal gaietan Foru Aldundiaren partaidetzari lehentasuna emango dioten proposamenak egitea, udal esparrua gainditzen duten kudeaketa moduen finantzaketari begirabatez ere.
  - 2.- Foru Aldundiari proposamenak egitea Euskadiko Finantza Kontseiluan aurkeztu eta defenda ditzan.
  - 3.- Foru Aldundiaren eta Udalen zorpetze bilakaerari buruzko gomendioak egitea.
  - 4.- Pertsonaleko ordainsarien eta ondasun arrunten erosketa gastuen nahiz zerbitzu publikoko gastuen hazkuntzari buruzko nondiknorakoa Gipuzkoako herrialde historikoan.

2.- El Consejo Territorial de Finanzas de Gipuzkoa tendrá carácter deliberante y consultivo.

## Artículo 2.

El Consejo Territorial de Finanzas de Gipuzkoa tendrá las funciones siguientes:

- a) Proponer los criterios para la fijación de la participación municipal en los tributos concertados y no concertados.
- b) Proponer los criterios de distribución de la participación municipal en los tributos concertados y no concertados, así como su cuantificación.
- c) Proponer fórmulas de financiación y criterios de distribución, en su caso, en favor de las Mancomunidades, Consorcios y demás Entidades supramunicipales.
- d) Proponer el modelo y la cuantía de la financiación de la Asociación de municipios más representativa en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.
- e) Proponer fórmulas de fomento de asociacionismo municipal y de fusiones y agregaciones de municipios.
- f) El estudio y formulación de propuestas a la Diputación Foral de Gipuzkoa y a los Municipios del Territorio Histórico sobre cualquier materia relacionada con la actividad económica, financiera y presupuestaria del sector público en el Territorio Histórico de Gipuzkoa y, en particular, sobre los siguientes aspectos:
  - 1.- La elaboración de propuestas para priorizar la actuación de la Diputación Foral en temas de interés municipal, con atención a la financiación de formas de gestión de base supramunicipal.
  - 2.- La formulación de propuestas a la Diputación Foral para su planteamiento y defensa en el Consejo Vasco de Finanzas.
  - 3.- La realización de recomendaciones acerca de la evolución del endeudamiento global de la Diputación Foral y de las Entidades Locales.
  - 4.- El nivel orientativo de crecimiento de las retribuciones de personal y los gastos de compra de bienes corrientes y servicios del sector público en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

5.- Udalek, beren eskumeneko ihardueren artean, zein iharduerei lehentasuna eman zehaztea.

g) Foru Administrazioaren eta Udal Entitateen arteko topagune eta elkarlanerako organoa izatea.

h) Iharduketa erregelamendua onartzea.

i) Helburuei begira zehaz dakizkiokene gainerako egitekoak.

### **3.- Artikulua. Kideak.**

1.- Hamar kide eta idazkari batek osatuko dute Gipuzkoako Finantza Kontseilua. Hamar kide horietatik Gipuzkoako Foru Aldundiak bost izendatuko ditu eta beste bostak Gipuzkoan zabalduen dagoen Udal Elkarteak.

2.- Udal finantzaketaren ardura duen Departamentuko foru diputatu titularra izango da Kontseiluaren lehendakaria. Foru diputatu hori Foru Aldundiak aukeratutako bost ordezkarietako bat izan beharko du. Lehendakariaren bota ez da erabakiorra izango.

3.- Idazkaria udal finantzaketaren ardura duen Departamentuko funtzionarietako bat izango da, lehendakariak izendatua.

### **4. artikulua.- Bilerak deitzea.**

Kontseiluaren bilera deia egitea lehendakari dagokio, bere ekimenaz nahiz Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkarien edo Udalen Elkartearen ordezkarien eskariz, eta bilera lekua deialdian adierazten dena izango da.

### **5. artikulua.- Iharduteko era.**

1.- Akordioak hartzeko beharrezkoa izango da Kontseiluko bileran sei partaide edo gehiago izatea. Bileretara, gutxienez, alderdi bakoitzenko hiru kide bertaratu beharko dira. Alderdi bakoitzenk bertaratutako partaideen gehiengoa aldeko bota eman beharko du proposame-

5.- Las actuaciones a desarrollar de forma prioritaria por las Entidades Locales en el ámbito de sus competencias.

g) Actuar como órgano de encuentro y coordinación entre la Administración Foral y las Entidades Locales.

h) Aprobar su Reglamento de funcionamiento.

i) Todas las demás que, para el logro de sus fines, le sean encomendadas.

### **Artículo 3. Composición.**

1.- El Consejo Territorial de Finanzas de Gipuzkoa estará integrado por diez miembros y el Secretario, cinco designados por la Diputación Foral de Gipuzkoa y los otros cinco por la Asociación de Municipios con mayor implantación en el ámbito del Territorio Histórico.

2.- El Consejo estará presidido por el Diputado Foral titular del Departamento competente en la financiación municipal que será, necesariamente, uno de los cinco representantes del ejecutivo foral. El Presidente no tendrá voto de calidad.

3.- Actuará de Secretario un funcionario del Departamento Foral competente en la financiación municipal, designado por el Presidente.

### **Artículo 4. Convocatoria de las sesiones.**

La convocatoria para la reunión del Consejo corresponderá al Presidente, a iniciativa propia o a petición tanto de la representación de la Diputación Foral de Gipuzkoa como de la representación de la Asociación de municipios y sus reuniones se celebrarán en el lugar que señale la convocatoria.

### **Artículo 5. Funcionamiento.**

1.- Para la adopción de sus acuerdos, se requerirá la presencia de seis o más miembros del Consejo, debiendo asistir por lo menos tres representantes de cada una de las partes que lo integran; la propuesta resultará aprobada si votasen a favor de la misma la mayoría de cada

na onartua izan dadin.

2.- Foru Arau honetan edo Kontseiluak barne funtzionamendurako onartutako arauetan aurrikusi ez denerako, Herri Administrazio Guztien Zuzenbide Arauei eta Administrazio Ihardunbidearen Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

## **6. artikulua.- Aholkularitza eta datu bilketa.**

Lehendakaritzak, Kontseiluak aurrez hala erabakita, egoki irizten den aholkularitza eskuatu ahal izango du eta Foru Arau honek esleitzen dizkion egitekoak betetzeko Euskadiko Administrazioko organoei, Udal Entitateei eta Herrialde Historikoetakoei beharrezkotzat jotzen diren datu guztiak eskatu ahal izango dizkie.

## **7. artikulua.- Kontseiluaren egintzen eraginkortasuna.**

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta herrialde historikoko Udalak Aurrekontuak egiterakoan Gipuzkoako Finantza Kontseiluaren gomendioak eta proposamenak ere izango dituzte kontuan.

## XEDAPEN GEHIGARRIA

Udalen Elkarte berriak sortuko balira eta izaera errepresentagarria izango balute, Foru Arau honetako 3. artikuluak aipatzen dituen bost kideen izendapena Gipuzkoako Herrialde Historikoan ezarrera izan dezaten Udalen Elkarte guztien artean egingo litzateke.

Udalen Elkarte bakoitzari, eratutako Elkarteen ordezkatutako udalerrietako biztanle guztien arabera, Elkarte horrek ordezka dezan Gipuzkoako udalerrietako biztanleen kopuruaren proportzioari dagokion kide-kopurua izendatzea egokituko zaio.

una de las representaciones presentes en la sesión.

2.- En lo no previsto en la presente Norma Foral o en las propias normas de funcionamiento interno que el propio Consejo acuerde, se regulará por lo dispuesto en la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

## **Artículo 6. Asesoramiento y obtención de datos.**

La Presidencia, previo acuerdo del Consejo, podrá solicitar todos los asesoramientos que se estimen pertinentes y recabar de cualquier órgano de la Administración del País Vasco, Entidades Locales y de los Territorios Históricos, todos los datos que se consideren necesarios para el desempeño de las funciones que esta Norma Foral le atribuye.

## **Artículo 7. Eficacia de los actos del Consejo.**

La Diputación Foral de Gipuzkoa y las Entidades Locales del Territorio Histórico tendrán, asimismo, en cuenta en la elaboración de sus Presupuestos las recomendaciones y propuestas del Consejo Territorial de Finanzas de Gipuzkoa.

## DISPOSICION ADICIONAL

En el supuesto de que se creasen nuevas Asociaciones de municipios de carácter representativo, la designación de los cinco miembros a que hace referencia el artículo 3 de esta Norma Foral se efectuará entre todas las Asociaciones de Municipios con implantación en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

A cada Asociación de Municipios le corresponderá la designación de un número de miembros equivalente a la proporción del número de habitantes de los municipios de Gipuzkoa que representen, sobre el total de habitantes de los municipios representados en las Asociaciones constituidas.

## XEDAPEN IRAGANKORRA

Bakarra.- Foru Araua indarrean sartzen denetik hasita bi hilabeteko epean Gipuzkoako Foru Aldundiak eta herrialde historikoko Udal Elkarterik adierazgarrienak Gipuzkoako Finantza Kontseiluko ordezkarriak izendatuko dituzte.

## XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Bakarra.- Foru Araua indarrean sartzerakoan maila bereko edo beheragoko aurkako xedapenak indargabeturik geratuko dira.

## AMAIERAKO XEDAPENAK

**Lehenengoa.**- Foru Arau honen garapen eta ezarpenerako behar adina xedapen egiteko baimena ematen zaio Foru Aldundiari.

**Bigarrena.**- Foru Araua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta bihar-ramunetik hasita sartuko da indarrean.

## DISPOSICION TRANSITORIA

Unica.- En el plazo de 2 meses a partir de la entrada en vigor de la presente Norma Foral, la Diputación Foral de Gipuzkoa y la Asociación de municipios más representativa en el Territorio Histórico nombrarán sus representantes en el Consejo Territorial de Finanzas de Gipuzkoa.

## DISPOSICION DEROGATORIA

Unica.- A partir de la entrada en vigor de la presente Norma Foral quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo establecido en la misma.

## DISPOSICIONES FINALES

**Primera.**- Se autoriza a la Diputación Foral para dictar cuantas disposiciones sean necesarias en el desarrollo y aplicación de la presente Norma Foral.

**Segunda.**- La presente Norma Foral entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.